

AUZOTARRAK ELKARTEA

“Kasu egingo badigute asko mogitu beharra daukagu”

Auzotarrak elkarteak udaleko aurrekontuen bileretan eztabaidatzeko zenbait eskaera egin ditu.

AUZOTARRAK elkartearen Hernaniko 16 auzotako elkarteak daude. 1994an sortu zen, eta bere helburua gauzak lortzeko indar handiagoa izatea da. Bilerak bi hilabeteko egiten dituzte (Karabel, Latxunbe eta Antziolako lokaletan), non eta premiazko zerbait ez dagoen. Elkarkekideek “presionatu ezean ezer ez da lortzen” diote; eta “jendeak zerbaitek gainean harrapatzen dituen arte ez du ezer egiten” ere bai. Saiatuaren poderioz Diputazio eta udaletxean ederki ezagutzen omen dituzte. □

UDALARI ZENBAIT ESKAERA


- Diru beharrez dagoenak zein laguntza izan ditzakeen jakiteko informazio kanpaina bat egitea.
- Kultur etxea txikia gelditu denez Aitor zinea berriro mar txan jartzea.
- Karabelen aparkamendu berriak egitea.
- Zikuñagako Amako ermita berreskuratzeko pausoak ematea.
- Gune itxi bat egitea

(Atsegindegi esaterako) jende askoko ekitaldietan erabili ahal izateko.

- *Cuesta de la muerteko* espaloia; zertan den eta zer pauso emango diren azaltzea.
- Hernani inguruan *bidegorriak* egitea.
- Hego saihesbideak zenbait puntutan (*Axala, Laubidieta...*) eragingo duen trafikoko ugaritzearantz erremedioak jartzea.
- Etxeberri auzoko kutsaduraren estudioa egitea.
- ...

Hernani egun osoko alboka festa atzo eta herrikoek eman zioten hasiera Albokaldiari

Azkenean, albokari beteranoek ezin izan zuten etorri. Tilosetan, jende dezente.



Aritz, Garikoitz eta Ixiar hernaniarrak alboka eta pandera jotzen, atzo, eguerdiko emanaldian.

VII ALBOKARI Topaketak eman du berea. Aurten, gainera, Juan Otxandio albokari hil berriaren omenezkoa izan da. Egun bakarrekoa izateko asteburu osokoa izateko apustua egin du Musika Eskolako Alboka taldeak; eta, emaitzari begirata, asmatu egin du. Atzo, 80 albokari inguru bildu ziren. Goizean, jendea alboka soinu esnatu; eguerdian, albokak, nola bakarrik hala lagunduta, zenbat lezakeen dotore erakutsi zuten. Bazkalondoren, berriz, hori dena eta gehiago. □

LAN POSTU BERRIAK ONGINTZAN

Sandiusterriko lan postu berrietarako azterketak gaur hasiko dira

Oraingo azterketok Ongintza barruko jendearentzat dira (hamar postu); gainera koentzat aurrerago izango dira azterketak.

SANDIUSTERRIKO zaharren egoitzak gero eta erizain laguntzaile gehiago behar ditu. Egun 109 adineko daude: 71 ezindu eta 38 autonomo; laster, ordea, denak izango omen dira ezinduak

(zainketa osoa behar dutenak). Oraingo hamar postuetarako (zazpi egun osoko eta hiru erdiko) Ongintzako hamar langilek eman dute izena; azterketak gaindituz gero barrura. Gaurkoa azter-

keta teorikoa izango da, ostiraletan, berriz teoriko-praktikoak egingo dituzte.

Erizain laguntzailerako beste hainbat postu ere irten dira, baina aurrerago izango dira azterketak. □

Senda belarrek eta jai giro ederrak agurtu zuten atzo Ereñotzuko Kultur Astea

Arratsaldeko bostetarako jende asko etorri zen. Antolatzaileek exitozat jo zuten.



Festa giro ederra izan zen atzo: senda belarrei ondo begiratu eta sagardoari kolpe!

PLAZA bete jende, primera-ko eguraldia, eta giro ederra izan zen atzo, Kultur Asteko azken egunean. Iniatzuarrek sendabelarrak ikusi, gaztaina jan eta sagardoa edanez errematatu zuten astea. Auzokoek ondo erantzun zuten eta Hernanitik zer suma joanak ere baziren. Denera, 75 senda belar klase jarri zituzten erakusketan (tartean *barrabasa*,

miura, lapaitza eta beste batzuk). Gaztainak 78 kilo eraman zituzten; eta zazpietarako denak janak. Sagardoa, berriz, 70 litro inguru eta kupelkada sagardo gozo. Antolatzaileak oso gustora daude Kultur Astea nola joan den ikusita. Atzokoa, “exitoa” izan dela diote. Datorren urtekoan pentsatzen hasteko garaia da. □

KAXKOA BERRITZEKO LANAK

Asteazkenean auzotarrek bilera proiektuari buruzko zalantzak argitzeko

Biteri Kultur etxean da, etzi arratsaldeko 19:30etan.

Udaleko hirigintza sailak Kaxkoko bizilagunak bilerara deitu ditu. Proiektua eta obraren adjudikazioa lotuta daude; eta Kaxkoa berritze lanak denbora gutxi barru hasiko dira. Bestalde, obra aprobetxatuz, etxea berritu nahi dutenek ere laguntza ditzute. Berez, informazio hau dena emateko komisioa egon da eta badago. Baina, detaile gehiago jakin nahi dituenak etzi, asteazkenean, Biterin du aukera.

Dena berrituko dute goitik behera: azpiegitura instalazio osoa, saneamendua eta kalea bera. Lanak lau fasetan egingo dituzte. □

TAMENDI
AUTOESKOLA

BAIMEN GUZTIAK

LOIOLA HERNANI
ASTIGARRAGA

IBAI
TABERNA - JATETXEA

klyc

Getaria kalea 15, DONOSTIA
Tel. 943 42 87 64

■ ERRUGBIA

Hernaniarrek zorte pixka bat falta izan dute lehen garaipena lortzeko

Bukaera aldera bi taldeek 3na zigor kolpe hutsegintzen zituzten.

HERNANI	DURANGO
5	6

Alineazioa: Gorra, Boli, Txetos, Larraza, Apeze, Otaño, Mitxel, Arruabarrena, Apaolaza, Benan, Juanjo, Pintado, Sarobe, Solano, Ruiz de Garibai.

Aldaketak: Mantila Txelosoren ordez; Otegi Larrazaren ordez; Txema Apezteren ordez; eta Casado Apaolazaren ordez.

Etxekeen tantoak: Sarobek lehenengo denboran entsegua.

ATZO goizean ikuskizun polita izan genuen Landareko belarretan. Partidu oso ona ez, baina, joko gogorra eta parekatua azaldu zuten hernaniarrek eta durangarrek. Bertakoak aurreratu ziren 5 eta 0; durangarrek bi zigor kolpe sartu zituzten eta markagailuari buelta eman zioten, ordea. Hortik aurrera bi taldeek izan zituzten partidua erabakitzeke aukerak: hernaniarrek azken zigor kolpeak ez

zituzten bi makilen artean pasa; ezta durangarrek ere, baina, bizkaitarrek aurreko biak nahiko izan zituzten garaipena eskuratzeko.

GERNIKARA

Hernaniko taldea sailkapeneko azken postuetan da jokatu-tako hiru partiduetan galdu eta gero. Datorren asteburuan Gernikaren kontra jokatu beharko dute, eta ea lehen garaipena ekartzen duten. □

■ FUTBOL LIGA

Hernaniko neskek lehen postuan dira Ordiziari 3-1 irabazita

Hirugarren mailako taldeak, berriz, 1-1 berdindu zuten Ondarroan.



Hernaniko Nesken taldea Ordiziari pasara eman aurretik.

HERNANIKO nesken taldea denboraldi borobila ari da egiten. Atzo Ordiziarekin oso partidu orekatua jokatu zuten, eta berriz ere irabazi. Partidu bakarra galdu eta bost irabazita lehen postuan dira orain.

LEHEN TALDEA ONDO

Gizonezkoen hirugarren mailako taldeak puntu garrantzitsua ekarri du Ondarroatik. Denboraldia pattal antzean hasi bazuten ere, hartu diote neurria mailari. □

■ BOLEIBOLA

UPV Hernanik 3-0 irabazi zuen errioxarren kontra

HERNANIKO taldeak erraz irabazi zuen larunbateko partidua kiroldegian. Bigarren sailkatua menpean hartuta oraingo erronka lehenengo postua lortzea dute. Oraingo partidua bakarra galdu du Hernaniko taldeak, lehenengo. Jokoak: 22-25, 5-25 eta 10-25.

JUBENILAK ONDO

Jubenilek ere irabazi egin zuten Lasarteren kontrako partidua 1-3. Lehen bi jokoak irabazi egin zituzten, eta hirugarrena galdu. Laugarrenean erabaki zuten partidua. Jokoak: 22-25, 13-25, 25-23 eta 14-25. □

**Hernaniko
Kronika
Interneten**

www.hkronika.com

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ea Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behe. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Latxe aurreko sagar *matxaka*.

■ **Asmatu dutenak:** Marian Apezetxea, Maddi Iradi, Putre, Iraitz Eizagirre, Denis Sorondo, Joxe M^a Zelarain eta D. Miner.

(Saria gehien asmatzen dituenak eramango du).

Rokodromoa egin nahi duen taldeak bilera du bihar

20:00etan elkartuko dira Tilosetan asmoa zehazteko.

HERNANIKO eskalatzaile talde bat herrian rokodromoa egin nahian dabil. Udalari eskaria egin nahi diote hurrengo *aurrekontu parte hartzaileetan*, eta hori zehaztuko dute asteartean.

ETXEBERRIKO LOKALA
Biharko bileraren ostean Etxeberri auzoan dagoen lokal bat ere ikusiko dute. Rokodromoa egiteko egokia den ala ez erabaki beharko dute joaten direnek. □

HERIOTZAK

Jenaro Jesus Aldabe Sarasola

Larunbatean hil zen 72 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur zazpitan Juan Batailatzailea Parrokian.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

■ PELOTA

Gipuzkoako Opena

Oiaga - Laskurain 22

Huizi - Alonso 12

Profesionalen 4 1/2ko txapelketa

Esna 22 - Telleria 12

Gipuzkoako liga

Eskuz Binaka Afizionatuak

Sarasua Olan 22 - Azkoitia 16

■ FUTBOLA

3.Maila

Ondarroa 1 - Hernani 1

Emakumezkoen Liga

Hernani 3 - Ordizia 1

Gorengo Maila

Hernani 1 - Elgoibar 3

Gazteen Liga Nazionala

Hernani 0 - Zarautz 2

Gazteen Ohorezko Liga

Mariño 1 - Hernani 2

Gazteen 2 Maila

Urnieta 2 - Hernani 1

Kadeteen Ohorezko Maila

Hernani 1 - Lehengoak 2

Kadeteen 2 Maila

Hernani 1 - Amaro 2

Haurren Ohorezko Liga

Hernani 3 - Vasconia 2

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga

UPV Hernani 3 - Universidad

de la Rioja 0.

Jubenilak

Galdakao 1 - Hernani 3

Neska kadeteak

Landaberri 0 - Hernani 3

Neska kadeteak

Inmaculada 1 - Leizaran Txiki 2

Neska alebinak

Langile B 3 - Urumea 0

Neska alebinak

Elizatxo A 3 - Elizatxo B 0

■ ERRUGBIA

1 Nazional Liga

Hernani 5 - Durango 6

Jubenilen lagunartekoa

Gipuzkoa 12 - Andaluzia 15

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

⊕ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gaez: Bulnes Etxeberri (Florida) ☎ 943 557738

⊕ ASTEARTEA

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz, 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gaez: Sagastiberri Urbieta, 7 ☎ 943 552941

⊕ ASTEAZKENA

- ▶ Egunez: Gomez Kale Nagusia, 15 ☎ 943 554892
- ▶ Gaez: Zatarain Andoain, Arteta ☎ 943 590802